

# ELKARTE

INFORMAZIO  
ALDIZKARIA

# 36

ABENDUA  
2 0 0 9

Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea

**HIRU LURRALDE,  
HIRU DEKRETU,  
LEGE BAT**

**DIRU SARRERRAK  
BERMATZEKO ERRENTA**

**GABON ZORIONTSUAK  
ETA URTE BERRI  
ZORAGARRIAI**



*Gozoratatu...*

**ARABA**

Beato Tomás de Zumárraga, 96-98 behea  
Tel. eta Faxa: 945 225 516  
01009 VITORIA-GASTEIZ  
e-mail: eginez@euskalnet.net  
www.eginez.org

**GIPUZKOA**

Ondarreta pasealeku 5.ean  
Tel.: 943 316 770 • Faxa: 943 316 379  
20018 DONOSTIA  
e-mail: elkartu@elkartu.org  
www.elkartu.org

**BIZKAIA**

Blas Otero, 63 behea  
Tel.: 94 405 36 66 • Faxa: 94 405 36 69  
48014 BILBO  
e-mail: fekoor@fekoor.com  
www.fekoor.com

# KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

## GIPUZKOA

- **AGAEB**  
Bizkarrezur bifidodunen Gipuzkoako elkarte.
- **AGAER**  
Gaixotasun erreumatikoek erasandako Gipuzkoako elkarte.
- **AGE**  
Gipuzkoako epilepsiaren elkarte.
- **ANAIIDIA**  
Gutxitasuna duten pertsonekiko kristau senidetasa.
- **ASPARGUI**  
Gipuzkoako parkinson elkarte.
- **BIZI-BIDE**  
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarte.
- **Debabarreneko Gutxitu Fisikoak.**
- **LEZDI**  
Lezoko gutxituen elkarte.

## BIZKAIA

- **A.C.C.U.**  
Crohn-en eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarte.
- **A.D.E.L.E.S.**  
Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte.
- **ADEMBI**  
Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte.
- **ALCER**  
Giltxurruneke gaixotasunen aurkako elkarte.
- **ASEBI**  
Asociación bizkaia elkarte espiná bífida e hidrocefalia.
- **Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko gurasoen bizkaiko elkarte.**
- **Lea-Artibaiko ahalurri fisikoen elkarte.**
- **AHEVA**  
Eusko hemofiliaren elkarte.
- **ARGIA**  
Ostomizatuen eta inkontinenteen euskal elkarte.
- **ASPAOVAS**  
Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarte.
- **AUXILIA**
- **A.V.A.H.**  
Bizkaiko ataxia hereditarioen elkarte.
- **B.E.N.E.**  
Bizkaiko eritasun neuromuskularren elkarte.
- **BIDARI**  
Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko ermuko elkarte.
- **BIZKEL**  
Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak.

- **CODISFIBA**  
Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko elkarte.
- **FRATER**  
Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte.
- **L.E.V.A.R.**  
Artritis reumatoidea duten pertsonekiko elkarte.
- **EFELA**  
Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko arratiko elkarte.

## ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**  
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonekiko Elkarte.

Eusko Jaurlaritzako  
Justizia, Lan eta Gizarte  
Segurantzza Sailak  
diruz, lagundutako  
argitalpena.

---

Elkarte horiekin  
harremanetan jarri nahi  
baduzu, jo ezazu zure  
probintziako  
koordinadorara

# a u r k i b i d e a

## O r o k o r r a

---

1. Hiru lurralde, hiru dekretu, lege bat .....4
2. Jabetza horizontalaren esparruan arkitektura-oztopoak  
kentzeari buruzko jardunaldia .....5
3. Diru sarrerak bermatzeko errenta .....7

## A r a b a

---

1. Eginezek gasteizko udalaren Irisgarritasun-ordenantzari  
egindako ekarpena ..... 10
2. Araba iraunkorra ..... 11
3. Hirigune historikoa ..... 12
4. Eginaren eginez udaltzaingoarekin bildu da ..... 13
5. 2010erako bono-taxia berritzea ..... 14

## B i z k a i a

---

1. Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak hirugarren sektoreak  
egindako ekarpenak jasoko ditu desgaitasunen bat duten  
pertsonei laguntzeko 2010-2013 laurtekoako jarduera-planak  
taxutzeko prozesuan ..... 15
2. Bizkaiko udalek bat egin dute FEKOOREk irisgarritasunari  
buruz proposatutako ordenantzarekin ..... 16
3. FEKOOREko batzarrak erakundeak 2008an egindako kudeaketa  
onartu du, eta zuzendaritza-batzordea eraberritu ..... 18
4. FEKOOREk Kalitate Eginkizuna sustatu eta sinatu du.  
Orain arte, hirugarren sektorean aritzen diren EAEko ehun  
erakundetik gora atxiki zaizkio hari ..... 19
5. "La Caixa" fundazioak eta FEKOOREk berriro sinatu dute  
Incorpora hitzarmena, baztertuta geratzeko arriskuan dauden  
kolektiboak lan-munduan txertatzekoa ..... 20

## G i p u z k o a

---

1. Kanean moldatzen ikasteko programa .....21
2. Gizarteratze-programa. Baliabide informatikoak eta  
teknologikoak eskuratzea ..... 23
3. 2009ko oporretarako programa bukatu da .....24

## HIRU LURRALDE, HIRU DEKRETU, LEGE BAT

Lege aldetik, berariazkotasun asko ditu Euskal Autonomia Erkidegoak, eta era askotakoak, gainera; hor ditugu, besteak beste, oinordetza-zuzenbidea eta zerga-zuzenbidea. Berariazkotasun horietako batek zuzen-zuzenean eragiten dio gure kolektiboari. Izan ere, estatuak mendetasun-legearen oinarriak eman zituen, baina autonomia-erkidego bakoitzak garatu behar du lege hura, eta halaxe egin da EAEn. Kontua da, alabaina, gure herriko berariazkotasunak direla medio, legea lurralde bakoitzean aplikatu aurretik foru-aldundi bakoitzeko batzar nagusietatik igaro behar dela, eta batzarrek, orduan, dekretu bat egin. Batzar-etxe bakar bat ados jartzea nahikoa zaila ez, eta hiru ditugu guk tartean. Nekez atera daiteke ezer berdintsurik hortik! Eta ondorioak hor ditugu: mendetasun-legearen baitako eskubideei eta zerbitzuei dagokienez, sekulako aldeak daude, zer lurraldetan gauden.

Has gaitezen hasieratik, oinarri-oinarritik. Nork eska ditzake zerbitzu horiek? Nork du zerbitzu horietarako eskubidea? Bada, hain zuzen ere, hortxe hasten dira lehenbiziko aldeak. Hasiera batean, lurralde guztiak bat datoz honetan: mendeko denak –edo haren tutoretza duenak– aurkeztu behar du mendetasun-eskaera, dagokion erakundeak egoera azter dezan. Hortaz, mendetasun-eskaera nork egin dezakeen izan beharko luke zehaztu beharrekoa. Baina hori ere ez. Bizkaian eta Gipuzkoan, izan ere, eskaera ofizios giteko aukera ere hor uzten

dute, baldin eta laguntzarako eguneko zentzoren batean edo harreraretxeren batean zerbitzuak eskatu badira, eta adineko pertsonentzat, betiere. Eta Araban, ez da aipatu ere egiten halakorik.

Gainerako alde guztiak aurkeztu beharreko agiriei buruzkoak dira. Hiru lurraldeek antzeko agiriak eskatzen dituzte, baina aldeak badaude, eta ez nolanhikoak. Osasun-agiriei dagokienez, EAEko Osasun Zerbitzuak (OSAKIDETZA) egindako osasun-txostenak dira baliozkoak Araban, bai eta MUFACE, ISFAS, MUGEJU eta hitzartutako beste osasun-zerbitzuek egindakoak ere; Bizkaian, berriz, medikuak adostutako txostena eskatzen dute; eta Gipuzkoan, aldiz, lehen mailako arretako medikuaren txostena eraman behar da. Eta agiriei dagokienez aldeak egonik ere, mendetasun-



eskaerak ebaluatzeko moduan eta administrazio-prozeduretan daude alde nabarmenenak.

Bizkaiak, Arabak nahiz Gipuzkoak, hiru lurraldeek, Mendetasuna Balaratzeko Baremoa (MBB) hartu dute, mendetasun-egoera zer-nolakoa den ebaluatzeko. Baina Bizkaiak RAI-RU sistema anglosaxoiari ematen dio lehentasuna (Resident Assessment Instrument - Resource Utilization Groups), eta, hortaz, funtsean ez ezik, moduaren aldetik ere bada desberdina ebaluazioa.

Edonola ere, administrazio-prozesuan lurralde batetik bestera dauden aldeak dira deigarrienak, administrazio bakoitzak bere epeak eta bere baldintzak ditu eta. Azter ditzagun Araba eta Bizkaia, haiek baitira desberdinenak. Araban, txosten bakar batean biltzen dute kasu osoa, eta Banakako Arreta Programa, beraz, ez dute bereiz hartzen; Bizkaian, aldiz, zenbait fasetan banatzen dute prozesua. Horrek guztiak nahasketa ugari eragiten ditu, epeei dagokienez, batez ere. Araban, 3 hilekoa da epea, gehienez ere; Bizkaian, berriz, 4koa, eta sei hilabeteren buruan inolako erantzunik jaso ez bada, ez-onartutzat jo behar da eskaera, ezezkotzat jo behar baita siltasuna Bizkaian, eta baiezkotzat,

ordea, Araban: erantzuten ez badute, eskatutakoa onartu egin dutela ulertu behar da.

Bestalde, hor ditugu, gero, lurralde bakoitzeko bateraezintasunak, eskatutako zerbitzuaren eta jasotzen diren diru-laguntzen artekoak. Izan ere, EAeko anabasa arauemailearen baitan, lurralde bakoitzak ahalmena du erabakitzeke zer zerbitzu zaizkien bateraezinak zer diru-laguntzari. Premisa gisa argi samarra da, baina hori galdu egiten da legearen hitzetan, eta gaian aditu ez diren guztiei egoera kaotikoak eragiten dizkie horrek. Salbuespenak ere beti izaten dira, ordea, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko dekretuetan argi eta garbi ezarrita dago, taulen bidez, zer zerbitzu diren bateragarriak, zerekin eta, hala dago kienean, zenbat denborarako.

Bistan denez, denok oinarri bera izateak ez du inolaz ere bermatzen eskubide eta zerbitzu berberak izango ditugunik, ezta denok Euskal Autonomia Erkidegoan bertan bizi izanda ere. Horrenbestez, exijitzeko modukoa da, bai eta salatzeko modukoa ere, edozein lurraldetan bizi izanda ere aukera berberak eduki eta eskatu ahal izatea, eta hala egin behar izatea. Egoera eta gertakari objektibo berberak erantzun berbera izan behar dute.

## JABETZA HORIZONTALAREN ESPARRUAN ARKITEKTURA- OZTOPOAK KENTZEARI BURUZKO JARDUNALDIA

**Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak antolatutako jardunaldian izan da ELKARTEAN**

Elkartean taldeko zenbait ordezkarik Gasteizen izan ginen joan den azaroaren 13an, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak antolatutako jardunaldi batean. Jabetza horizontalaren esparruan arki-

tektura-oztopoak kentzeari buruzkoa zen jardunaldia, eta igogailuak eta jartzen dituzten enpresentzat nahiz finken administratzaileentzat zen, batik bat.



Aurkezpena Ignacio de la Puerta jaunak eta Sagrario Iturrate andreak egin zuten; Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendaria da lehena, eta Aholkularitza Zerbitzuko abokatua, bigarrena. Jardunaldia antolatzekeo premiaren nondik norakoak argitu zituzten biek, eta ildo horretatik, gai horri lotuta alor judizialean zer-nolako aurrerapenak egin diren eta etxejabeen elkarteetan borrokatzekeo egunero zer-nolako zailtasunak izaten diren azaldu.

Haien ondoren, Bilboko lehen auzialdiko 1. epaitegiko magistratu Ana García Ortuño andrea hasi zitzaigun hizketan, eta halako txosten juridiko bat garatu zuen, aukera-berdintasunari buruzko 51/2003 Legea eta Jabetza Horizontalari buruzko Legean hitzarmenetara heltzea oinarri hartuta. Higiezinetan arkitektura-oztopoak kendu nahi izaten direnean ziurtasunik eza izaten da maiz zuzenbideari dagokionez, eta halakorik ez gertatzeko zer prozedurari jarraitu behar zaion azaldu zuen García Ortuño andreak, batetik, eta zenbait kasuistika aztertzeaz batera, bestetik, epai batzuk aipatu zituen, nola joka daitekeen agertzeko adibide modura.



Guillermo Treku abokatua, azalpenaren une batean.

Gero, **Elkartean** taldeko kide eta FEKOOR elkartearen aholkulari juridiko Guillermo Treku abokatuak hartu zuen hitza, eta gaia ikuspegi juridikotik aztertu aurretik, zenbait datu estatistiko eman zituen: Euskadin, herritarren %29k mugikortasun-urritasuna du, etxebizitza guztietatik

%65ek ez du igogailurik, eta etxebizitza guztietatik %80k nolabaiteko oztoporen bat du igogailura iristeko. Bestalde, eta ikus-entzunezko batez baliatuz, ARAUA zertan den azaldu zuen: zer bilakaera izan duen, zer lege-aldaketa izan diren, eta zer arau berri eman izan diren.

Bere aurretik epaitegiko magistratuak egin bezala, Treku ere alderdi juridikoari heldu zion gero, eta zenbait alderdi argitu zituen alde horretatik: etxejabeen elkarteek alde aurretik zer izapide egin behar dituzten (erregistroak, aktak...); zertan dautzan jabetza pribatuarekiko eraginak, zortasuna eta gai horri lotuta onartutako azken ordenantzak; zertan diren desberdinak irisgarri eta erabilgarri kontzeptuak, betiere 68/2000 Dekretuaren arabera; eta alor horrekin lotuta gutxieneko zer baldintza bete behar diren berrikuntzak egiten direnean.

Jardunaldiaren bigarren zatian, eta ondo merezitako etenalditxo bat egin ondoren, Aholkularitza Zerbitzuko arkitecto Javier Regalado jaunari iritsi zitzaion txanda. Hark azaldu zuenez, garrantzi handikoa da ezer egiten hasi aurretik teknikari edo adituei aholkua eskatzea, eta irtenbide **unibertsalak** aurkitzea (eta ez pertsonalak), halakoak jende gehiagorentzat baitira onuragarri beti. Adibide modura aski lan erakutsi zituen (batzuk eskasak, eta beste batzuk oso irtenbide egoikiak), ikusteko nola jaitsi igogailuak zero kotaraino, nola kendu sarbideetako eskailerak...

Azkenik, Industria saileko Iñaki Ibarrrondo jauna eta Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako Maider Estensoro andrea izan genituen hizlari, eta ederki azaldu zuten, lehenak, zer eskakizun tekniko eta zer jokabide-arau dituen Ikuskaritzak, eta bigarrenak, etxejabeentzako zer laguntza dauden, bai diruz bai bestelakoak, eta zer laguntza mota dauden, atalka, familia-unitateka, izapide jakinak...

Horri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan zure lurraldeko koordinakundeekin (**Elkartu, Fekoor, Egin**ez).

# DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA

Krisialdi ekonomiko betean gauden honetan, langabezia-tasa izugarri hazi den honetan, inoiz baino garrantzi handiagokoa da gizarte-egoera ahulenerako diren kolektiboek irmoki bermatzea izango dutela gutxienero bizi-maila: oinarritzko premia materialak asetzeko adinakoa, alegia.

Ildo horretatik etorri zen 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratze-koa eta Diru Sarrerak Bermatzeko; hain zuzen ere, **Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema** arautzeko, eta haren bidez, herritar guztiei bi eskubide aitortzeko: bizitzako oinarritzko premiei aurre egiteko behar beste baliabide ekonomiko izateko eskubidea, eta gizarteratzeko nahiz lan-munduan txertatzeko laguntza pertsonalizatuak izatekoa.

Sistema horretan, gizarteratzen eta lan-munduan txertatzen laguntzeko tresna nagusia **Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta** da. Prestazio ekonomiko bat da hura, aldizkakoa, eta bizikidetzak unitate batean bizi eta nahikoa diru-sarrerarik ez daukaten pertsonen dago zuzenduta: ez oinarritzko premiekin lotutako gastuei aurre egiteko eta ez gizarteratze-prozesu orotako gastuei aurre egiteko nahikoa diru-sarrerarik ez daukatenei, hain zuzen. Prestazio horren titular izan ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- Prestazioa eskatu den data baino urtebete lehenagotik, gutxienez, bizikidetzak unitate bat eratua izatea.
- Prestazioa eskatu den udalerrian errolatuta egotea eta bertan benetan bizi izatea, eta eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenagotik, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan benetan bizi izana.
- Nahikoa baliabiderik ez edukitzea.

- 23 urte baino gehiago izatea, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik (baina, betiere, 18 urte baino gehiago izatea).
- Egoitza-zerbitzurik edo halako prestaziorik ez jasotzea.
- Laneko diru-sarrerarik izanez gero, ez egotea lanaldi laburtuan edo antzeko beste egoera batean, ezarritako salbuespenetan izan ezik.



Diru-sarrerak bermatzeko errenta hileroko zenbatekoa izango den kalkulatzeko, bi hauen arteko kenketa egin behar da: prestazioaren bidez bermatutako gutxienero diru-sarreraren prestazioa eskatu duenaren bizikidetzak unitateak dituen diru-sarrerak. Hortaz:

- Lagun bakarreko bizikidetzak unitateentzat: 640,64 euro-koa.
- Bi laguneko bizikidetzak unitateentzat: 822,64 euro-koa.
- Hiru laguneko edo gehiagoko bizikidetzak unitateentzat: 910 euro-koa.

Desgaitasunen bat duten pertsona askok eta askok zahartzaroko, baliabidezintasuneko edo alarguntasuneko pentsioen bat jasotzen dute (batzuek kotizaziopekoa, eta beste batzuek kotizaziorik gabekoa). Alde horretatik, azpimarratzekoa da

bizikidetza-unitatean egoera horretan dagoen norbait baldin badago bi berezitasun izan behar direla kontuan. Alde batetik, bizikidetza-unitate independentetzat hartuko direla halakoak, ezkontidearekin eta ekonomikoki beren mende dauden pertsonekin batera, eta kanpoan geratuko direla, hortaz, bizilekuan bizi diren gainetarako pertsonak. Eta bestetik, prestazioaren hileroko zenbatekoak hauek izango direla:

- Lagun bakarreko bizikidetza-unitateentzat: 728 euro-koa.
- Bi laguneko bizikidetza-unitateentzat: 910 euro-koa.
- Hiru laguneko edo gehiagoko bizikidetza-unitateentzat: 982,80 euro-koa.



Diru-sarrerak bermatzeko errentarekin batera, **Etxebizitza Gastuetarako Prestazio Osagarria** ere badakar 18/2008 Legeak, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular direnek ohiko etxebizitza edo bizitokia alokatzeko gastuei aurre egin diezaien.

Aipagarriak dira, halaber, **Gizarte Larrialdietarako Laguntzak**. Hauek izan daitezke hartzaile: gizarte-bazterkeriari aurrea hartzeko edo hura saihesteko edo arintzeko behar diren berariazko gastuei –ohikoei nahiz ezohikoei– aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonak. Halakotzat hartuko dira, nolani ere, gastu hauek:

- Ohiko etxebizitza edo bizitokia edukitzeko nahiz hari eusteko dauden gastuak (energia-gastua, ur-gastua, zabor-gastua...).
- Oinarrizko premiekin lotutako gastuak, hala nola janzteak dakartzanak, eta heziketak nahiz prestakuntzak eta osasun-arretak eragindakoak.

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren esparruan kokatu behar dira, bestalde, hainbat premia-egoeratan laguntza emateko asmoz EAEko lurralde historiko bakoitzean sortu diren prestazio guztiak.

**Gipuzkoan**, esate baterako, pasa den irailean sartu zen indarrean 29/2009 Foru Dekretua, **Gizarteratzeko Diru Laguntzak** arautzen dituena. Norberaren bizikidetza-unitateko oinarrizko premiei aurre egiteko diru-sarrerarik batere edo nahikorik ez daukatenek jaso ahal izango dute diru-laguntza mota hori, eta helburu argia du: gizar-tean dagoeneko baztertuta daudenak edo baztertuta geratzeko arriskua dutenak gizartera daitezzen erraztea. Bi gizatalde jakini zuzenduta dago laguntza:

- Gipuzkoako Lurralde Historikoan 6 hilabetean egon izan eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko gainerako baldintzak bete bai, baina beste baldintza hau betetzen ez dutenez prestazio ekonomiko hori jaso ezin dutenei: urtebetean errol-datuta egotea eta udalerrian benetan bizi izatea.
- Adinez nagusi egin direla-eta haurrak nahiz nerabeak zaintzeko eta babesteko sistematik kanpo geratu diren pertsonen, baldin eta une horretan ez badira gizarteratzeko egoitza-zerbitzuren baten onuradun izan, edota ez badira senideren batekin bizitzen hasi.
- Denbora batez Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapean egon izan, adinez nagusi egindakoan egoitza-zerbitzuren batean babes hartzea erabaki, eta orain, artean diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko gutxieneko adinik izan



gabe, bizimodu independentea izatea aukeratzeko duten pertsonen.

Gizarteratzeko diru-laguntzaren zenbatekoari dagokionez, hau izango da, gehienez ere: diru-sarrerak bermatzeko errentarako aurreikusitakoaren %80, baina bizikidetzaren unitateko lagun kopurua kontuan hartuz, betiere.

**Bizkaian, bestalde, 13/2002 Foru Dekretua onartu zen, otsailaren 12koa, Gutxieneko Bermerako Laguntza Prestazioa (GUBELAPE) arautzen duena, gizarterateko dagoeneko baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskua duten herritarrak gizarteratzeko. Diru-sarrerak bermatzeko errenta oso-osorik edo haren zati bat jasotzen duten herritarrak izan daitezke GUBELAPE prestazioaren titular, eta zenbatekoari dagokionez, hona hemen aukerak:**

- Lagun bakarreko bizikidetzaren unitateentzat, bi hauen kendura: lanbide arteko hileko gutxieneko soldataren %100 ken diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbateko osoa.
- Bi laguneko bizikidetzaren unitateentzat, bi hauen kendura: lanbide arteko hileko gutxieneko soldataren %133,31 ken diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbateko osoa.
- Hiru laguneko bizikidetzaren unitateentzat, bi hauen kendura: lanbide arteko hileko gutxieneko soldataren %146,64 ken diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbateko osoa.
- Lau laguneko bizikidetzaren unitateentzat, bi hauen kendura: lanbide arteko hileko gutxieneko soldataren %159,97 diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbateko osoa.

Eta 64/2000 Foru Dekretuak, bestalde, maiatzaren 23koak, Gizarteratzeko Laguntza Berezia arautzen ditu, bai gizarteratzeko familia-laguntza berezia (baldintzaren bat betetzen ez dutela eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso ezin duten familientzat), eta bai banakako gizarteratzeko-laguntza berezia (162,27 euro-koa).

**Arabian, azkenik, 78/2006 Foru Dekretua dute, Arabako Lurralde Historikoan Bermerako Laguntza Prestazioa arautzen duena. Prestazio horren titular izan daitezke:**

- Kotizazio gabeko pentsio bat baizik jasotzen ez dutenak (osorik edo zati bat), baldin eta hura baliaezintasuneko edo erretiro-pentsioa bada. Halakoetan, prestazioaren zenbatekoa 113,86 euro-koa izango da, bizikidetzaren unitate ekonomikoan kotizazio gabeko pentsioa jasotzen duen lagun bakarria bada, eta 96,78 euro-koa, bi lagun edo gehiago badaude.
- Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak, baldin eta guztira lortzen duten diru-sarrera (prestazio hau barne) lanbide arteko gutxieneko soldata adinakoa ez bada.



Laburbilduz, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden prestazio ekonomikoek eta lurralde historiko bakoitzean daudenek osatzen dute Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema, eta hari esker, bai eta beste sistema batzuk direla tarteko ere (Gizarte Segurantzaren, Enplegu Zerbitzuak, Mendetasuna Zaintzeko Sistema, etab.), premia nahiz estatus ekonomiko hamaika egoera arintzen dira: herritarrena, oro har, eta baztertuta dauden nahiz baztertuta geratzeko arriskua duten kolektiboena, bereziki.

## EGINEZEK GASTEIZKO UDALAREN IRISGARITASUN-ORDENANTZARI EGINDAKO EKARPENA

2009ko irailaren 25ean argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean *erabilera nagusia bizileku kolektiboa duten eraikinen irisgarritasun-egoera hobetzearen in-guruko udal-ordenantza*.

Bukatu berri den arau horrekin, ir-tenbide bat aurkitu nahi da eraikinak irisgarriago egiteko orduan sortzen di- ren arazoentzat, gero eta kezka han- diagoa baitago gizartearen gai horren inguruan, eta, horregatik, oztopo ar- kitektonikoak desagerrarazteko gero eta eskari gehiago egiten baitira.

Eginezek parte hartu du behin betiko idazketan, eta zenbait **ekarpen egin dizkio testuari**:

Eginezek uste du arauaren zati horre- tan garbi adierazi beharko litzatekeela zer **arau-testuingurutan** sartzen den, eta zein den horren **espiritua**. Beraz, derrigorrez aipatu behar dira hona- koak ere: 20/1997 Legea, abendua- ren 4koa, irisgarritasuna sustatzen duena; aurreko arau hori sendotzen duten arau berriak, hala nola, *ezinta- suna dutenen aukera-berdintasunari buruzko legea*, Konstituzioaren 14. artikulua, arau honen I. tituluan bar- ne hartutakoa, zabaltzen duena; edo duela gutxi berretsi duten *minusba- liotasuna duten pertsonentzako Nazio Batuen Konbentzioa*, irisgarritasun- baldintzak betetzea giza eskubideen babes-mailan jartzen duena, eta ho- riek ez betetzea diskriminazio garbi- tzat hartzen duena.

Ez ziren aipatzen *jabetza horizontala- ren* alorrean indarrean dauden legeak,

egoera hauetan eragin garbia dute- nak; hain zuzen ere, Ordenantza ho- nek horiek osatu nahi ditu aplikatzeko zail edo ezinezko direnean. Ezarritako araudiari eta jabetza horizontaleko araudiari buruzko erreferentziak sar- tu ditugu, bai eta 15/1995 Legeari, tes- tuan sartu genuenari, buruzkoak ere.

Gainera, arauaren xedea zabaldu da; horren aplikazio-eremua hedatu da landako guneeetara, eta ez etxebizitza- tara soilik, eskoletara, etxebizitzetara, mediku-instalazioetara eta lantokieta- ra baizik.

**Xedeari** dagokionez, zabaldu egin da, eta, eskatzen zen eran, erreferentzia egiten dio lur pribatuaren **desjabe- tzeari**, eta **lur publikoaren lagapenari**, Eginezek proposatu bezala. Ordenan- tzan adierazten da bi mota horietako lurrak erabil daitezkeela oztopo arki- tektonikoak desagerrarazteko.

**Eraikinari gehitzen zaizkion elemen- tuen sailkapenari** dagokionez, hiruga- rren atal bat erantsi da, eta, eskatzen zen eran, horrek zehazten du jarri beharreko zer elementuk daukaten lehentasuna. Elementu horiek hitzez hitz jasotzen dira aurreko ataletan.

**Plataforma jasotzaileei** dagokienez, kontuan hartu da Eginezek egindako proposamena: beste aukera tekniko edo ekonomiko bideragarririk ez da- goenean soilik erabiliko dira. Gainera, horien arteko lehentasun-ordena eza- rri da, eta pertsonen autonomia ber- matu behar dute guttiz.

**Eraikina irisgarri bihurtzeko lanei** da- gokionez, garbi dago helburua honako

hau dela: minusbaliotasuna daukaten pertsonak, bai eta gainerako herritar guztiak ere, autonomiaz sartu ahal izatea kanpotik eraikineko atal guztietara. Beraz, irisgarritasuna bermatzen duten elementuak instalatzerakoan, sartzeko aukera hori bermatzeko egin beharreko lan guztiak egin beharko dira. Testua kontuan hartu da, eta zabaldu egin da; eraikineko solairu desberdinen artean (trasteleku eta garajeak adibidez) irisgarritasun-lanak zabaltzeko aukera ere barne hartzen du.

Desjabetzeko irizpide orokorretan sartu da, eta, beraz, eraginpeko lurren xedea zabaldu da lokaletara; betiere, ezinbesteko gutxienekoa erabiliko da.

Udalari **galde egiteko** aukera ezarri da, bai lizentzia eskatu baino lehenago, bai eta ondoren ere. Elementu hori desjabetze-prozeduran nahitaezko, lagungarri edo sinplifikatzaile bihurtzea espero dugu.

**Desjabetze-eskaerari** dagokionez, gure ustez horren definizioa zabaldu behar zen, izan ere, ez zen zehazten onuradunaren kontzeptua. Horrela, indarrean dagoen araudian jasotako bi aukerak sartu dira: 15/1995 Legean ezarritakoari jarriki, dagokion baimena eskatzen duten jabeen erkidegoak edo minusbaliotasuna daukaten pertsonak.

## ARABA IRAUNKORRA

### Probintziako garapen iraunkorraren alorreko zenbait behar mahaigaineratu ditu Eginaren eginezek

Joan den azaroaren 17an Arabako Foru Aldundiko gela Zurian egon ginen, lehenengo bilera bat egiteko lurraldeko eragile garrantzitsu batzuekin, bai arlo sozialeko eragileekin, bai arlo ekonomikokoekin, bai eta ingurumen-arlokoekin ere.

Araba lurralderako Garapen Iraunkorreko Plan Estrategikoa aurkeztu zuen Arabako Foru Aldundiak. Horren helburua da garapen-eredu iraunkorra goa lortzea lurralde osorako.

“Egiaztatze-taldea” osatu da herritarren parte-hartzea bermatzeko asmoz. Egiaztatze-saio horretan, iraunkortasuna nola ulertzen duten azaldu zuten taldeek: ekologistek, emakume nekazariak, zenbait ekimenetako abeltzainak eta nekazariak, gure kolektiboak, etab.

**Eginaren eginezek** adierazi zuenez, Araba iraunkor izan dadin, pertsona guztien erabateko parte-hartzea bermatu behar da garapenaren alorrean probintzian ezartzen den

guztitan, pertsona horiek edonolakoak direla ere (dibertsitate funtzionala), eta horien guztien eskura egon behar dute baliabide eta ondasun komunitarioek, hala nola, garraio-motak guztiek, hiri-altzariak -edukiontziek, iturriak, seinaleek...-, edo nekazaritza-turismoko establezimenduek, ekomuseoek, erabilera publikoko zentro publikoek eta pribatuak, enpresa-ekimenez, etab.



# HIRIGUNE HISTORIKOA

Urriaren 21ean El Campillora joan ginen bilera batera, Javier Lobatok gonbidatuta. Lobatok, Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa era Integralean Biziberritzeko Agentzian (arich) bete berri duen postutik, biziberritze horren alderdi sozialak landu nahi ditu. Adierazi zuenez, kontuan hartzen du biztanleen bizi-baldintzak hobetu behar direla, gizarte-kohesioa erraztu behar dela, boterea eman behar zaie la bizilagunei, eta ekintza kolektiboari balioa gehitu behar zaiola, tresna kolektiboa izaki.

**Eginaren eginezek** parte hartu zuen bileran beste eragile batzuekin batera, hala nola, auzo horretako (Ramon Bajo) hezkuntzaren munduko ordezkariekin, almendrako bizilagun-elkarteekin (Mendebaldeko Malda, frontoia birgaitzearen aldeko elkarte), bai eta desabantaila sozialeko egoeran bizi den populazioaren zati baten herritar-interesak ordezkatzeko dituzten beste kolektibo batzuekin ere (Batzordea, Sartu, eginez...).

Agentziak proposatu zuen lurraldean, inguruneetan, esku hartzea. Proposamen horren aurrean, zenbait

zinegotzigok mahaigaineratutako eta oraindik estali gabeko errebindikazio eta eskari batzuk azaltzeko aukera baliatu zuen **eginaren eginezek**.

Horrela, hezkuntza-zentroak aurkeztutako eskariekiko (normalizazio-falta, haur immigranteen kopuru handia dela eta) elkartasuna erakutsi zuten **eginezeko** ordezkariak, eta irisgarritasun-falta ere badagoela adierazi zuten.

Hirigune Historikoan dauden eta irisgarritasunik ez daukaten eraikin publikoak zerrendatu zituzten: Goiuri Jauregia, Eskoriatza-Eskibel Jauregia, Etxanobe Etxea, dutxa-etxea, Farolen Museoa, Santa Mariaren birgaitze ezaguna, etab., etab.

**Eginezek** iritziak, badago non esku hartu, eta lan ugari dago egiteko. Borondate politikoa behar da horretarako, bai eta historikoki mahaigaineratutako errebindikazioak onartzeko konpromisoa ere, horrela lortuko baita Hirigune Historiko irisgarria, iraunkorra eta modernoa, eta pertsona guztien parte-hartze autonomoa bermatuko duena.



# EGINAREN EGINEZ

## UDALTZAINGOAREKIN BILDU DA

Joan den urriaren 22an, **Eginaren eginez** elkar-terko bi ordezkari Trafiko saileko komisarioorde Juan Manuel Martin jaunarekin bildu ginen, ezinduentzako aparkalekuekin lotutako bi gairi buruz hitz egiteko: batetik, irailean bi astez Udaltzaingoak aparkalekuen kontrolerako egin zuen kanpainaren berri jakiteko, eta bestetik, halako aparkalekuekin lotutako zenbait alderdi aztertzeke.

Kanpainari dagokionez, Elkartekook garbi adierazi genuen garrantzi handikoa dela ezinduentzako aparkalekuekin bi aste haietan bezainbesteko arretaz zaintzea eta kontrolatzea urte osoan; baina zaila omen da hori, komisarioordearen esanetan, udaltzainek kale eta errepideetako alderdi askoren arabera jokatu behar izaten baitute, alde horretatik. Udaltzainen ordezkariak berak esan zuenez, bestalde, aldeaz aurretik kontrolatzean dago gakoa, askoz zailagoa baita txartelak eta gero kontrolatzea.

Iraileko kanpainaren ostean, datu hauek ditu Udaltzaingoak:

- 1.574 txartel aztertu zituzten.
- 1.616 ibilgailu aztertu zituzten.
- 59 salaketa izan ziren.
- 2 ibilgailu eraman zituzten garabiz.
- Iruurrezko erabileragatik salaketa 1 izan zen.

Guztira 60 salaketa izan ziren, beraz: iruzurrezko erabileragatik, bat; eta erabilerak okerragatik, 59.

Elkartekook jakinarazigenion, halaber, behar-beharrezkoa dela gertakizun bereziak daudenerako-eta ibilgailua akreditatzeko irizpideak ezartzea, ezinduok aukera izan dezagun ezinduentzako txartela erabiliz guretzat



gordetako aparkalekue-tara jotzeko; adibidez, Olarizuko erromerian, irailean, eta Gamarrako igerilekuetan, uda osoan.

Alde horretatik, Udaltzaingoari eskatu genion ezintasunen bat eduki

eta ezinduentzako txartela daukaten herritarren ibilgailuak har zitzatela ibilgailu akreditatuztat, berriki gertatutako egoerak eta antzekoak berriz gerta ez daitezen: autoz eramaten bagaituzte, barrura sar gaitetzke, baina geu bagara gidari, ez; halakoetan, ibilgailua kanpoan utzi behar dugu, eta barrura ahal dugun moduan joan. Hori kalte itzela da ezindu asko eta askorentzat, ibiltzeko bastoiak edo makuluak behar, edo mugikortasuna urrituta izan, baina laguntza tekniko elektrikorik erabiltzen ez dugunontzat. Udaltzainen ordezkariak adierazi zigunez, aztertuko dute gaia.

Komisarioordeari jakinarazi eta eskatu genion, bestalde, eraikuntza-lanetako edukiontzia eta jartzen dituztela maiz askotan ezinduentzako aparkalekuetan, laneo materiala gordetzeko, batzuetan, eta lanean sortutako hondakinak botatzeko, zenbaitetan, eta horrek zailtasun eta oztopo larriak eragiten dizkigunez, udaltzainek zaindu eta kontrolatu ditzatela halako egoerak.

Azkenik, Elkartera helarazi diguzuen kexa baten berri eman genion komisarioordeari: zenbait kale berritu ondoren lehen ezinduentzat bazeuden aparkaleku batzuk kendu egin dituztela, alegia. Berrikuntza-lanak amaitu eta gero, lehen ezinduentzako jarrita zeuden aparkaleku guztiak gorde behar dira berriro, gutxienez, eta gehiago ere bai, 20/1997 Legeak ezarritako ratioa betez gero (ezinduentzako aparkaleku bat, bestelako 40 edo frakzio bakoitzeko).



# 2010erako

## BONO-TAXIA BERRITZEA

Gasteizko Udalak jakinarazi digunez, oraindik aurrera Herritarren Arretarako Bulegoetara jo behar da (eta ez Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara, orain arte bezala), bai Bono-Taxi programan eskaera berriak egiteko, bai eskaerak berritzeko.

Bono-Taxi programako eskaera berri-ritu nahi dutenek 2009ko azaroaren 30etik abenduaren 8ra bitartean joan behar dute Herritarren Arretarako Bulegoetara. Egun horretatik aurrera

egindako eskaerak epe barruan egin-dako guztiak aztertu ondoren bidera-tuko dira.

Aurtengo bonoek 2010eko urtarrila-ren 27ra arte balio dute, eta 2010erako bonoak hala eskatu dituzten herrita-rrei etxean bertan emango zaizkie, posta ziurtatu bidez, 2010eko urtarri-laren 5etik aurrera.

## Herritarren Arretarako Bulegoen Zerrenda

### MENDIZORROTZA BULEGOA

Jose Luis Compañon "Compa" kalea, 1.

### ABETXUKO BULEGOA

Kooperatiba plaza, 8.

### EUROPA BULEGOA

Gasteiz hiribidea, 85.

### ALDABE BULEGOA

Arriagako Atea, 1-A.

### ESPAINIA PLAZAKO BULEGOA

Espainia plaza (Plaza berria), 1.

### ARRIAGA BULEGOA

F. Xabier Landaburu kalea, 9-A.

### ARIZNABARRA BULEGOA

Teodoro Gonzalez de Zarate kalea, 38 (Ariznabarra kiroldegia).

### IPARRALDE BULEGOA

Zuberoa plaza, 1.

### JUDIMENDI BULEGOA

Judimendi hiribidea, 26.

### EL PILAR BULEGOA

Konstituzio plaza, 5.

### HEGOALDE BULEGOA

Alberto Schommer kalea, 10.

### LAKUA BULEGOA

Etxanobetarren zidorra, 5.

## Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak hirugarren sektoreak egindako ekarpenak jasoko ditu desgaitasunen bat duten pertsonen laguntzeko 2010-2013 laurtekorako jarduera-planak taxutzeko prozesuan

Iñigo Pombo jauna Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendari nagusi izendatu zuen maiatzean Bizkaiko Foru Aldundiak, eta Bizkaiko Batzar Nagusietako aretoan izan genuen irailaren erdialdean, Bizkaian desgaitasunen bat duten pertsonentzako nahiz haien senideentzako 2010-2013 laurtekorako estrategia, esparru-plana eta jarduera-plan sektorialak lantzeko proiektua aurkeztu. Han izan zen Victor Bayarri aholkularia ere, Alter Civites aholkularitza-enpresako zuzendari den aldetik, enpresa hark baitu gizarte-erakundeekin elkarrizketak egiteko ardura.

Gizarte Ekintzako 2008-2011 Plan Estrategikoaren baitan kokatuta dago lana, eta helburu argia du: estrategia eta esparru-plan zehatz bat prest izatea urte bukaerarako, argi eta garbi egon dadin funtsezko zer ildo estrategikori jarraituko zaien Bizkaiko lurralde historikoan desgaitasunen bat duten pertsonen nahiz haien senideen premiei konponbidea emateko eta haien autonomia pertsonala sustatzeko. Hortaz, jarduera-plan sektorialak izatea da helburua, azken batean, zehatz-mehatz finka dadin zer helburu eta ekintza diren beharrezko, gizarte-

zerbitzuen alorrean laguntza gehiago eta hobeak lortzeko, kontuan hartuz, betiere, gizarte-zerbitzu horiek zer kolektiborentzat edo pertsonentzat diren, eta haiek berariazko zer premia dituzten.

Plangintza egiteko prozesuan, gainera, zenbait eragilek ere parte har dezaten nahi du Gizarte Ekintza Sailak: desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideak zaintzeari eta sustatzeari dagokionez funtsezkotzat jotzen dituen eragileak, hain zuzen ere. Eta horien artean dira, besteak beste, hirugarren sektoreko erakundeak (Fekoore ere bai, beraz), Foru Aldundiko bertako nahiz Eusko Jaurlaritzako zenbait sail eta erakunde, eta toki-administrazioak, EUDELen bidez.

Iñigo Pomboren beraren esanetan, *“gizarte-ekintzaren alorrean zerbitzuak emanez aritzen diren eragileekin harreman estuagoak izan nahi ditu Gizarte Ekintza Sailak, eta Hirugarren Sektorearekin, batez ere; eta horretarako, parte har dezan sustatuko du, lagun dezan berariazko zer premia dauden hautematen, zer erantzun diren egokiak zehazten, zer jarduera berri egin behar diren finkatzen, eta lan-prozedurak taxutzen”*.

Parte-hartzea hiru faseren bidez antolatu da. Lehenbiziko fasean, elkarrizketak egingo dituzte erakunde bakoitzarekin, kolektibo bakoitzaren berariazko ekarpenak biltzeko eta egiatan zer laguntza-mota behar dituzten eta zer premia dauzkaten ikusteko, horrela lortuko baita geroko eredia taxutzea, gaur egungo baliabideen mapa zer-nolakoa den aztertzea, prestazioen katalogo hobereana zein den zehaztea, eta jarduera-planak



zer helburu eta jarduera orokor, zehatz nahiz zeharkako izango dituen finkatzea, kolektiboko talde guztiak kontuan hartuz, betiere.

Fase horren ondoren, berariazko diagnostikoa egiteko baterako mintegi bat izango da urrian. Eta gero, azaroan eta abenduan, plangintzari buruzko lehenbiziko proposamen bat aztertuko dugu eragile guztiok batera.

Prozesu horren guztiaren bidez, esku hartzeko modua aldatu eta hobetu nahi du Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak, eta beste paradigma-mota bat aplikatzen hasi, bi alderdi hauek har ditzan oinarri: bizi-kalitatea lortzeko laguntzen sistema, eta plangintzen ardatza gizabanakoa izatea. Aldaketa horren bidez, gainera, beste helburu hau ere lortu nahi du Sailak: gizabanakoei esku ematea, bizitzako esparru guztietan bete-betean garatzeko gaitasun handiagoak izan ditzaten, gizartean autonomia pertsonal handiena izan dezaten, bakoitzak bere bizitzari buruzko erabakiak hartzeko aukera izan dezan, eta gizarte-bizitzan aktiboki parte har dezaten, nork bere nor tasuna askatasunez garatuz, betiere.

## Helburuak

Bizkaian desgaitasunen bat duten pertsonen eta haien senideen bizi-modua hobetzeko helburuen artean, hauek dira azpimarragarrienak:

- Autonomia pertsonala sustatzeko eta zaintzeko zer esparru-ereduri

eta zer ildo estrategikori jarraituko zaien zehaztea.

- Egiatan zer laguntza-mota behar diren eta zer premia dauden aztertzea.
- Gutxitasunen bat duten pertsonentzat gizarte-zerbitzuen alorrean gaur egun ardura edo kudeaketa publikoko zer baliabide eta prestazio dauden aztertzea.
- Prestazioen eta zerbitzuen katalogoa zehaztea.
- Zeharkako eta oro har aplikatzeko zer helburu eta jarduera izango diren zehaztea.
- Prestazioak nahiz zerbitzuak ezartzeko eta haien estaldura zehazteko planak finkatzea.
- Prestazioak nahiz zerbitzuak aplikatzeko, haiei buruzko jarraipena egiteko eta haiek etengabe ebaluatzen jarraibideak, irizpideak eta sistemak zehaztea.
- Mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko eta haien autonomia pertsonala sustatzeko legea aplikatzea erronka itzela baita, Bizkaiko Foru Aldundiak erronka horri erantzun egokia eman diezaion sustatzea eta koordinatzea.
- Eragile publiko nahiz pribatu guztien estrategiak eta jarduerak ahalik gehiena bateratzea eta koordinatzea.
- Plana egiteko prozesuan ahalik eta eragile gehienek parte har dezaten sustatzea.

## Bizkaiko udalek bat egin dute FEKOORek irisgarritasunari buruz proposatutako ordenantzarekin

Irisgarritasunari buruzko ordenantza onartu berri du Santurtzik, FEKOORek proposatutakoa oinarri hartuz. Orain, beraz, hogeien bat dira, guztira, ordenantza berretsi duten udalak; tartean, Bilbo eta Donostia.

Estatuan araudi aitzindaria da, guztiz, eta helburu argia du: igogailurik ez duten eraikuntzetan oztupo arkitekto-

niko guztiak kentzea, eta irisgarritasuna lehenetsi edo hobestea, irizpide guztien artean (aireztapena, argiak, jabari publikoko eremuak hartzea...).

Etxebizitzetako nahiz merkataritzalokaletako irisgarritasuna sustatzea du helburu ordenantzak. Gaur egun irisgarritasunari buruz indarrean dagoen araudiak argi eta garbi berresten du



desgaitasunen bat duten pertsonak aukera-berdintasunerako eskubidea badutela, eta onartu ere bai, gainera, behar-beharrezkoa dela zenbait neurri hartzea, desgaitasunen bat duten herritarrek dauzkaten oztopoak eta zailtasunak aurreikusteko eta konpentsatzeko. Bestalde, denoi dei egiten digu (botere publikoei, batik bat, baina herritar guztioi ere bai, oro har) behar diren neurri eta erabaki guztiak hartzera, bene-benetan eta modu eraginkorrean berma dadin desgaitasunen bat duten pertsonak iritsiko direla ingurune fisikora, zentzu zabalera; hortaz, bai hiri-ingurunera, bai espazio publikoetara, bai eraikinetara. Oraintxe bertan, etxebizitza ugari eta merkataritza-lokal asko eta asko zailtasunez eta oztopoz josita daude irisgarritasunaren aldetik, bai aldi baterako desgaitasunen bat duten pertsonentzat bai behin-betikoren bat dutenentzat.

Ordenantzaren helburua, hortaz, argia da: herritar guztiak etxebizitzetara, bizilekuetara eta merkataritza-lokalekora iristeko aukera izango dutela bermatu behar denez, eta horretarako hainbat lan egin beharko direnez (igogailuak eta arrapalak jartzea, besteak beste), indarrean dauden legeen eta hirigintza-plangintzen esparruan ezinbesteko esku-hartze horietarako irizpideak eta neurriak arautzea.

Gerta liteke norbaitek modu sinergiarrian frogatzea lan jakin batzuk -baimenduak izan eta gero, noski- ezin egin daitezkeela, lanek osorik

edo partzialki ukitzen dituzten ondasunen edo eskubideen titularrak aurka daudelako. Halakorik gertatuz gero, udal-agintaritza eskudunak desgaitze-espeditentea hitzartu ahal izango du, desgaitzearen onuradun izango direnek hala eskatuta.

Etxejabeen elkarteek arazo nagusi hau izaten dute, hain zuzen, igogailuak edo arrapalak jarri nahi izaten dituztenean: halakoak denenak diren elementuetan jarri ezin izatea (hala nola eskailera-kaxetan eta patioetan).

FEKOOREk proposatutako ordenantzak irtenbide egokia ematen die horrelako gatazkei, bi arrazoi direla tarteko: alde batetik, desgaitzearen bidea garatzen duelako (eta EAEko Lurzoruaren Legean bada hura), eta bestetik, jabari publikoko eremuak hartu beharra ere aurreikusten delako, baina betiere, jakina, hartarako nahikoa arrazoi baldin badago, eta beste irtenbide tekniko guztiak erabat ezinezkoak badira.

Desgaitze-proiektuan berariaz adierazi behar da nor izango diren onuradunak, eta horri dagokionez, bi izan daitezke: etxejabeen elkarteak, edo bestela, indarrean dagoen jabetza horizontalaren legearen arabera lanak egiteko gehiengo nahikoa badutenak. Bestalde, desgaitasunen bat duten pertsonak ere izan daitezke desgaitzearen onuradun, 15/95 legeari jarraiki, baldin eta epai irmoz higiezina egokitzeko lanak egiteko eskubidea onartu bazaie.

Higiezina egokitzeko lan horretan elementu mekanikoren bat jarri behar baldin bada, ahalegina egin behar da,



beti, igogailua kaleko kotaraino irits dadin; hori erabat ezinezkoa dela frogatzen bada, plataforma bertikal bat jarri behar da; eta hori ere ezinezkoa bada, eta orduan baino ez, plataforma zehar bat jar liteke.

Etxebizitzetako Irisgarritasuna Sustatzeko toki-ordenantzari esker, orain arte erabat ezinezkoak ziren birgaitze-lan asko egin ahal izango dira: higimena urrituta daukaten pertsonak ez dute etxebizitzaz aldatu behar izango (eta egoerarik onenean, hori ere), eta bakoitzak bere inguruan bizitzen jarraitu ahal izango du. Horren alde dihardu **FEKOOREk**, hori baita desgaitasunen bat dutenen kolektiboa gizarteratzeko modurik onena, bai eta herritar horiek guztiek ere gizar-tean

parte har dezaten lortzeko modurik lagungarriena ere.

Basauri, Getxo, Bermeo, Ermua, Barakaldo, Ondarroa, Portugalete, Erandio, Irun, Errenteria, Elgoibar, Eibar, Zarautz eta Gasteiz. Horra hor ordenantzarekin bat egin berri duten azken udalen zerrenda: onartu berria dute batzuek, eta onartzeko bidean, besteak.

**FEKOOREkoon iritziz, "ordenantza-eredu horrek irisgarritasuna sustatzeko jarraibide eta funtsezko baliabide izan behar luke Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta nola ez, EAE osoan".** Horregatik, EUDELi helarazi diogu (Euskadiko Udalen Elkarte), EAEko udal guztiek ezar dezaten sustatuko dutelakoan.

## **FEKOOREko batzarrak erakundeak 2008an egindako kudeaketa onartu du, eta zuzendaritza-batzordea eraberritu**

FEKOOREk ohiko batzar nagusia egin zuen ekainaren bukaeran, erakundearen egoitza nagusian. Batzar hartan, Federazioak 2008. urtean egindako kudeaketa ekonomikoaren eta jardueren berri eman zitzaizen bertaratutakoei. Aurreko batzarreko akta irakurri eta onartu ondoren, aho batez onartu ziren 2008ko ekitaldiko balantze ekonomikoa, iazko jardueren memoria, eta 2009ko aurrekontu ekonomikoa. Bestalde, "Desgaitasunen bat duten neskatxen eta emakumeen eskubideak onartzearen aldeko deklarazioa" delakoari atxiki ala ez ere bozkatu zen, eta aldekoa izan zen bozketa.

Gai-zerrendak, gainera, zuzendaritza-batzorde berria hautatzea ere bazekarren: presidentetza Bizkaiko Ostomizatuen Elkarteari (ARGIA) egokitu zitzaion, eta presidenteordezta, Esklerosi Anizkoitza dutenen Bizkaiko Elkarteari (ADEMBI). FEKOOREko batzarra da erakunde organo erabakitzaile gorena. Hartako presidentetza urtebetekoa da, kide diren 19 elkar-teen artean txandaka hartzen da, eta



aurreko urtean presidenteorde-tza izan duenari dagokio urte horretan presidentetza hartzea.

Horren guztiaren ondorioz, eta zuzendaritza-batzordeak karguak berretsi ondoren, Iñaki Ansoleaga jaunak (ARGIA) du FEKOOREko presidentekargua, eta presidenteorde-kargua, berriz, Clara Lopez Aurrecochea andreak (ADEMBI). Diruzaintza Begoña Sanchez andreari (FRATER) dagokio; idazkaritza, Pilar Garcia andreari (ALCER); idazkariorde-tza, Joseba Rosales jaunari (BIZKEL); eta FEKOOREko kide diren gainerako elkarteetako kideak izango dira batzordekide.



## FEKOORek Kalitate Eginkizuna sustatu eta sinatu du. Orain arte, hirugarren sektorean aritzen diren EAEko ehun erakundetik gora atxiki zaizkio hari

Pasa den ekainaren 30ean, FEKOORekook eta hirugarren sektorean aritzen diren EAEko beste ehun gizarte-erakunde, GKE eta sarek baino gehiagok Kalitate Eginkizuna sinatu genuen, aurrean Eusko Jaurlaritzako, Bizkaiko Foru Aldundiko eta Euskalit – Bikaintasunerako Euskal Fundazioko arduradun bana genituela, kalitatearekin nahiz kudeaketa hobetzearekin lotutako ekimenei buruz gogoeta egiteko gogoz.

Sinatzeko ekitaldia Bilbon egin zen, boluntariotzarako Bolunta agentziaren areto nagusian, "Hirugarren sektorea: kalitatea eta berotasuna" gai hartuz antolatutako topaketa edo jardunaldiaren baitan. Han izan ziren, besteak beste, Bizkaiko Gizarte Ekintza Saileko ahaldu Juan Maria Aburto, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako sailburuorde Fernando Fantova eta Euskaliteko Nerea Hormaetxea, ekimena sustatu duten gizarte-sareetako arduradun guztiekin batera. FEKOOReko teknikari Ainhoa Astarloak ere parte hartu zuen sinatze-ekitaldiaren aurkezpenean, elkarteko arduradun gisa, eta FEKOOReko zuzendari Juan Carlos Solak sinatu zuen konpromisoa.

## Alor horretan hobetzeko eta garden jokatzeko tradizioa

Kalitate-sistemak ez zaizkie arrotz hirugarren sektoreko erakundeei. Eta ekimen horren bidez, kalitatearen alde egin nahi da, hain zuzen; hots, erakundeek kalitatezko kudeaketa egitea, gardentasunez jokatzeta eta etengabe hobetzen saiatzea, bai barne-antolaketari dagokionez, bai



esku-hartzei dagokienez (erakundeen zerbitzuak jasoko dituztenen bizi-kalitatean duten eragina).

Azken hilabeteotan, kalitatearekin eta kudeaketa hobetzearekin lotutako zenbait ekimenek bat egiteak bultzatuta, Kalitate Eginkizuna – Compromiso de Calidad izeneko agiria prestatzen aritu da FEKOOR, proiektuan erabat sartuta, hirugarren sektorean aritzen diren Bizkaiko nahiz EAEko zenbait sareekin batera elkarlanean.

Kalitatea eginkizun hartzeko proiektuan sartzeak helburu bat baino gehiago ditu: hirugarren sektoreko erakunde eta sareek alor horretan duten tradizioa ikusaraztea, erakunde horietako batzuek aspaldidanik zein ahalegin handia egin duten ezagutzera ematea eta azaltzea, eta azkenik, azpimarratzea erabat beharrezkoa dela erakundeen kulturara eta errealitatera moldatutako tresnak, ereduak eta arauak izatea, batetik, eta hirugarren sektoreko erakundetara bideratutako edo zabalduetako laguntza-sistemak izatea, bestetik.

Jardunaldiaren hasieran gonbidatuak aritu ziren hizlari, eta denek nabarmendu zuten zein garrantzi handia duen hirugarren sektoreak, gizarte zibila eta gizarte-zerbitzuen prestazioa antolatzen dituen aldetik.

Kalitate Eginkizuna taxutzeko zer-nolako bidea egin den azaldu ondoren, eta hura zertan datzan irakurri eta gero, 13 sareren eta 46 erakunderen ordezkariak –tartean FEKOORekoak– konpromisoari atxikitzeko agiriak sinatu zituzten.

## “La Caixa” fundazioak eta FEKOORek berriro sinatu dute Incorpora hitzarmena, baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboak lan-munduan txertatzekoa

“La Caixa” fundazioko Gizarte Ekin-tzak eta FEKOORekook berriro sinatu dugu enplegua sustatzeko Incorpora programaren esparruan elkarlanean aritzeko hitzarmena. Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak lan-munduan nahiz gizartean txerta daitezzen sustatzen du, batik bat, ekimenak, eta horien artean dago, hain zuzen ere, desgaitasun fisikoren bat duten pertsonen kolektiboa. Incorpora programari esker, desgaitasunen bat duten pertsona asko sartu dira lan-merkatuan Bizkaian. Garrantzi handiko ekimena da, beraz, eta inoiz baino gehiago orain, krisialdi betean gauden honetan, lanpostu ugari ari baitira galtzen gure kolektiboan.

Euskal Autonomia Erkidegoan duela hiru urte jarri zen abian Incorpora programa. Denboraldi horretan, zenbait erakunderekin sinatu du “la Caixa” fundazioak elkarlanean aritzeko hitzarmena, eta argi dute helburua: denen indarra eta ahalegina biltzea, programaren garapenean batera aritzeko. Incorpora hitzarmena sinatu duten erakunde guztiek, jakina, esparru bera dute ardatz: baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboak lan-munduan nahiz gizartean txertatzea. Hona hemen erakundeen zerrenda: Gipuzkoan, Ikañan fundazioa eta Ortzadar Guraso Elkarte; eta Bizkaian, Peñascal fundazioa, Bilboko Elizbarrutiko Caritas, Agiantza Elkar-tea eta Gurutze Gorria.

Denborak aurrera egin ahala programa apurka-apurka sendotuz joatea da nahia, eta izugarri baliagarria izango da, Espainian programan lanean diharduten erakunde guztiek elkarri informazioa eta bizipenen berri izateko.

Ezaugarri jakineko gizon-emakumeei lagundu nahi die Incorpora programak: gizartean baztertuta geratzeko arriskuan daudenei, 45 urtetik gora izan eta lan-esperientziarik ez dutenei, desgaitasunen bat dutenei, eta lehen lana lortzeko zailtasuna duten gazteei.



Orain arteko emaitzak kontuan hartuz, kontratazio-motak era askotakoak dira, eta iraupena ere bai. Zenbaitetan, eta gazteen nahiz desgaitasunen bat duten pertsonen kolektiboan, batik bat, 2 hiletik 9 hilera bitarteko praktikaldiko lan-kontratua izaten da lehenbizikoa, eta gero etortzen da ohiko kontratazioa. Kontratuen %30ek, gutxi gorabehera, sei hiletik urtebetera bitarteko iraupena du.

Ekonomia-sektoreguztietako enpresak daude programari atxiki zaizkien artean, baina zerbitzu-sektorekoak dira nagusi, hala nola garbiketa-enpresak, telemarketinekoak eta geriatrikoak. Ugari dira, halaber, ostalaritza- eta sukaldaritza-enpresak, dendak, manufaktura-industriak, eta eraikuntza-enpresak.

Hitzarmena sinatzeko ekitaldia Bilbon egin zen, Caritasek Bizkaian duen egoitza nagusian, eta aurrean egingo jardueri buruzko oso iritzi ona agertu zuten denek; aipatzekoak dira, besteak beste, Plan Estrategikoaren garapena eta jarraipena, Enpresen Zerbitzuen Mapa, eta Erakundeen eta Erabiltzaileen Zerbitzuen Mapa.

2009-2010 denboraldiari begira, hiru ardatz edo giltzarri nagusi izango ditugure jardunak: zerbitzu-kalitatea ere sare gisa EAEn sartzea; Incorpora sarea ikusaraztea eta haren berri ematea, bai sareko kide diren erakundeei, bai enpresa-taldeei, bai enpresa handiei; eta azkenik, Incorpora programaren baitan lan-munduko txertaketaren alorreko teknikariak etengabe prestatzeari heltzea.

# KALEAN MOLDATZEN IKASTEKO PROGRAMA

Elkartuk (ohiko jardueretan laguntza pertsonala emateko zerbitzua, hala nola paseoa, erosketak, kudeaketan egiten laguntzea eta aisialdia) egiten duen "Norbera kalean moldatzen ikasteko Programaren" baitan, eskatutako zerbitzuak nabarmen areagotu dira aurreko urteekin alderatuz gero (2008an baino %7 gehiago). Kontuan izan behar da Programak abenduaren 31ra arte jarraituko duela, eta horrenbestez, ehuneko hori oraindik handi daitekeela. Artatutako erabiltzaile gehienak gutxitasun fisiko larria duten pertsonak dira, eta horrenbestez, mendekotasun handia dutenak.

Batzordeetan, jardunaldietan eta abarretan aktiboki parte hartzen jarraitzen dugu, parte hartuz, eta beharrezkoa denean, proposamen jakinak eginez. Azken hilabeteetan, hauetan parte hartu dugu:

	2008	2009
URTARRILA	203	229
OTSAILA	213	220
MARTXOA	226	222
APIRILA	231	237
MAIATZA	235	258
EKAINA	223	214
UZTAILA	231	228
ABUZTUA	224	233
IRAILA	199	241
URRIA	231	287



## IRUNGO UDALA

**Udal Plangintzarako Aholku Kontseilua.** Aldian-aldian, udal honek antolatutako bileretara joaten gara, zenbait gairi buruz hitz egiteko. Une honetan, Hiri-antolamendurako Plan Nagusia berrikusten ari dira. Elkartuk etengabe azpimarratzen du irisgarritasuna eta irisgarritasuna plan horietan kontuan hartzea.

**Ezinduen Batzordea.** Irungo udala. Gizarte-ongizaterako Aholku Kontseiluaren barruko batzorde horretan parte hartzen dugu. Batzorde horren azken bileran, udalerrri horretan zer irisgarritasun-obra egingo diren jakinarazi zituzten, Estatu Funtsaren E Planaren baitan. Era berean, Mendekotasun Legearen izapidetzean zer aldaketa egin diren jakinarazi zituzten.

## EIBARKO IRISGARRITASUN-PLANA

Udal honek Irisgarritasun-plana idatzi du. Planean jaso ditu udalerrri horretako irisgarritasun-arazoak, bai eta arazo horiek nola konpon daitezkeen ere. Elkartu Federazioak hainbat ekarpen egin ditu, plan hori hobetzeko. Halaber, idazketan egon zitezkeen akatsak hauteman ditu.

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO EZINDUEN KONTSEILUA

Urriaren 19an izan zen Elkarturen egoitzan. Kontseilu hori gure egoitzan egin ohi da. Aldundiak "Gizarte zerbitzuen oraina eta etorkizunari" buruz antolatu zuen udako ikastaroaren balioespena aurkeztu zen, besteak beste. Mendekotasun Legearen balioespen eta prestazio berrien datuak eman ziren.

## Mendekotasunaren Prestazio Ekonomikoen eskaerak (2009ko urriaren 14ko datuak)

PRESTAZIO MOTA	ESKAEREN EGOERA			ZENBATEKOAK
	ESKAERAK	ESKAEREN %	TRAMITATUAK	ALTAK
LPPE	1.331	11,04	1.258	489.370
FIZL	10.321	85,58	10.125	2.339.807
ZLPE	408	3,38	401	78.252
GUZTIRA	12.060	100	11.784*	2.907.429

\*%97,71 s/12.060

LPPE: laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa

FIZP: famili ingurunean zaintzeko prestazioa

ZLPL: zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa

## DONOSTIAKO UDALEKO GIZARTE KONTSEILUA

Urriaren 26an, ohiko bilkuran Donostialdeko Topo-Metroaren proiektua aurkeztu zen. Informazioa emateko bilkura bat izan zen. Izan ere, oso proiektu garrantzitsua da, ez hiriarentzat soilik, lurralde osoarentzat. **Ernesto Gascok, Eusko Jaurlaritzako Garraio**

sailburuordeak, eta M<sup>a</sup> Aranzazu Tapiak, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru-diputatuak, aurkeztu zuten. Jakinarazi zuten metroak mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzako irisgarritasun-baldintzak beteko dituela. Geltokiak zenbait mailatan daudenean, igogailuak eta beste neurri batzuk izango dituzte, irisgarritasun unibertsala bermatzeko.

## ARARTEKO

Ararteko erakundea Mendekotasun Legeari buruzko azterketa bat egiten ari da. Elkartu parte hartzen ari da azterketa horretan, eta informazioa ematen du mendeko erabiltzailearen ikuspuntutik.

## ZANGARIK GABEKO TEKNOLOGIAREN XI. NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK-ZANGARIK GABEKO HIRI BATEN ALDE

Azaroaren 11n eta 12an, "Afección a la vida ciudadana por las obras con zanja" batzordean parte hartu genuen, Asociación Ibérica de Tecnología sin zanja elkarteak gonbidatuta, merkatarien elkartearekin eta tokiko poliziarekin batera. Obrak egitea kaleetarako deserosoa dela azaldu genuen, eta horrenbestez, teknologia

berri horrek ez ditu trabatzen eta galarazten herritarrak oro har, eta batez ere mugikortasun-arazoak dituzten pertsonak.



# GIZARTERATZE PROGRAMA

## BALIABIDE INFORMATIKOAK ETA TEKNOLOGIKOAK ESKURATZEA

Aurreko urteetan egin den bezala, programa hori egiten jarraitzen dugu. Urrian, berriz ekin genion programa horri. Programa horretan zenbait mugikortasun-arazo dituzten 25 pertsonak parte hartzen dute. Teknologia-aurrerapenak baliagarriak dira, oztopoak desegiteko eta zenbait motako gutxitasun fisikoek eragindako mugak murrizteko. Eta "Gizarteratze-programa" abian jarriz, ELKARTUK gutxitasunak dituzten eta mugikortasun- eta mendekotasun-arazo larriak dituzten pertsonen autonomia sustatu nahi du. Horretarako, eguneroko jarduerak egiteko aukera ematen duten baliabide teknologikoak jarri nahi ditu pertsona horien eskura. Gure ustez, pertsona batzuentzat positiboa da erabiltzaileak programa horretara joatea. Izan ere, hauek lortzeko aukera ematen baitu: haien arteko

harreman pertsonala, garraibide publikoak erabiltzea, etxetik edo abegientrotik kanpo jarduerak egitea, tresna informatikoei buruzko oinarriko ezagutzak eskuratzea, laguntzaile pertsonalaren laguntza, hirian zehar askatasunez ibiltzea, etab.





# 2009KO OPORRETARAKO PROGRAMA BUKATU DA

Azaroaren 1ean, "Gutxitasun fisikoak eta sentsorialak dituzten pertsonentzako oporretarako programa. 2009. urtea" bukatu egin zen. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika departamenduak sustatu zuen programa hori, ELKARTUrekin lankidetzan (Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea). ELKARTUK antolatu eta egin zuen programa hori. Guztira, gutxitasunak dituzten 184 pertsonak bidaiatu dute, eta 174 pertsona gehiago joan dira laguntzaile gisa. Horrenbestez, guztira 358 pertsonak parte hartu dute. Parte-hartzaileen tipologiari dagokionez, ez dira aldaketa nabarmenak izan (gutxitasun-maila, onuradunen adina, ekonomia-mailak eta lurraldebanaketa). Parte-hartzaileen tipologiak oinarrizko ezaugarri hauek ditu: ekonomia-maila baxuko pertsonak, oso gutxiagotasun-maila handia, mugikortasuneko eta mendekotasun pertsonaleko oso arazo handiak, eta batez besteko adin altua.

2009. urteko taldeak egitean, ez da gertakari nabarmenik izan Programaren garapenean. Programako parte-hartzaileen erantzunetatik jasotako balioespenean, aztertutako alderdietan asebetetze-maila altua zegoela ikusi da zalantzarik gabe.

